



IRAKASLEEN IRAKAS-JARDUERAZ IKASLEEK DUTEN IRITZIARI OURUZKë INKESTA

*Irakasleen iritziari buruzko inkesta
nola egin gela birtualean*



Irakasleentzako erabiltzailearen eskuliburua

2024/2025 Ikasturtea

AURKIBIDEA

Sarrera	5
1. URRATSA: INKESTAREN BLOKEA AKTIBATU	6
2. URRATSA: INKESTA EGIN	10
3. URRATSA: INKESTAREN BLOKEA DESAKTIBATU	11
ARGIBIDEAK	13

SARRERA

Eraldaketa Digitalaren eta Komunikazioaren Errektoreordetzak proiektu bat abian jarri du **Ikasleen Iritziari buruzko inkestaren prozedura digitalizatzeko**.

Proiektu honen helburua bikoitza da, batetik, papera ezabatzea (ikasturte bakoitzean 220.000 galdetegi baino gehiago jasotzen dira) eta, bestetik, inkestak biltzeko prozedura orokorra sinplifikatzea, besteak beste, ikastegietako idazkaritzetan gutun-azalen erregistroa bertan behera uztea.


Inkesta egiteko prozedura digitala erraza izango da, eGela bidez. Irakasleak **"Ikasleen iritziaren inkesta"** izeneko bloke bat aktibatuko du, dagoeneko konfiguratuta dagoena, eta, ikasleek blokea eta botoi bat eskuragarri izango dituzte ohiko galdetegia betetzeko. Ahalik eta erantzun gehien biltzeko, inkestatzeko prozedurak ikasleek galdetegia gelan bertan betetzea ezartzen du, gaur egun egiten den bezala, baina, gailu mugikorrek erabiliz.

Irakasleei eGela konfiguratzen laguntzeko, eskuliburu hau egin dugu non azaltzen den ze nolako urratsak eman behar diren Ikasleen iritziari buruzko inkesta egin ahal izateko.

Ebaluazio langileen harremanetarako informazioa:

Langileak	Posta elektronikaren helbidea	Tel. Zb.
Susana Andino	susana.andino@ehu.eus	946018174
Luis M ^a Gallarreta	luisma.gallarreta@ehu.eus	946015103
Naiara Ortega	naiara.ortega@ehu.eus	946015110

Lehenik eta behin, gure gela birtualean sartuko gara, LDAP erabiltzailea eta pasahitza sartuz.



amari le zabal zazu
Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

eGela

✓ eGelako berrikuntza nagusiak. Informazio gehiago.

♥ IRAKASLEENTZAT BAKARRIK. Irailen hasiko da 'eGelan' hasteko tailerra: zure ikasurako sortutako oinarritako nozioak' (ZURE KABUZ) ikasitxo eguneratua. Eman izena hemen.

UPV/EHuko kontua

Erabiltzailea

Pasahitza

Sartu

Euskara (eu) Cookie-n oharra

Erabiltzailearentzako Arreta Zerbitzua

Ikasgela Birtualen Kudeatzailea


Datuen Tratamendua - Espediente Akademikoak

1. URRATSA: INKESTAREN BLOKEA AKTIBATU


Behin gela virtualean sartura, EDIZIOA botoia aktibatu beharko dugu EDITATU ahal izateko.




Jarraian "GEHITU BLOKEA" aukeratu beharko dugu. Ekintza hau egin daiteke bai gure kurtsoaren goiko partean bai eskuinaldeko aldean.



Ondorengo irudian agertzen den bezala, "GEHITU BLOKEA" sakatuz zerrenda bat zabalduko zaigu. Klik egin gehitu laukitxoan eta zerrendan aukeratu "Ikasleen iritziaren inkesta".



eGelaren orri nagusian bloke berri bat zabalduko zaigu. Bloke horretan gure izen-abizenak agertuko dira irakasle gisa, ondorengo irudian ikusten den bezala:



Ikasleek blokea behar den moduan ikusteko, blokea mugi daiteke (geziak erabiliz .

Inkesta blokeak konfiguragarriak dira gezen eskuinaldean dagoen engranajea sakatuz gero. Han, gelan matrikulatuta dauden irakasleen artean, inkesta blokean agertu behar den irakaslearen izena aukera dezakegu. Gela birtualean hainbat bloke aktibatu daiteke.


Azkenik, edizioa amaitzeko EDIZIOA botoian klik egin behar dugu.

The screenshot shows the eGela platform interface. At the top, there is a blue header with the eGela logo and navigation links: Hasiera, Aginte-panela, Material erabilgarria. On the right, there is a user profile icon and a toggle switch labeled 'Edizioa' (Edition), which is circled in red. Below the header, there is a blue navigation bar with various menu items: Ikastaroa, Ezarpenak, Partaideak, Kalifikazioak, Txostenak, Galdera-bankua, Eduki-bankua, Dominak, Iragazkiak, Zakarrentzia, Inportatu. The main content area is titled 'Metrología Dimensional'. On the left, there is a sidebar with a list of items under 'Orokorra' (General): Berrien foroa, Guía del Estudiante - Metrolo..., Presentación Asignatura - cu..., Examen 1er Parcial, La metrología dimensional e..., Oferta TFMs (remunerados) ..., CEM la metrología también e..., Examen 2º parcial (Naiara). The main content area has a section titled 'Ikasleen iritziaren inkesta' (Students' opinion survey) with the name 'Irakaslea: NAIARA ORTEGA RODRIGUEZ'. Below this, there is a button labeled 'Web bidezko inkesta-atzematea'. There is also a section titled 'Orokorra' with a button labeled 'Tolestu guztia'. On the right, there is a sidebar with a section titled 'Edukien aitorpena' (Course completion) with links for 'IKASGELA BIRTUAL HONETARAKO' (For this virtual course) and 'NIRE IKASGELA BIRTUAL GUZTIETARAKO' (For all my virtual courses). The 'Edizioa' toggle switch is currently turned off.

2. URRATSA: INKESTAK EGIN

Orain prest gaude ikasgelara joateko eta ikasleei jakinarazteko dagoeneko inkesta eGela bidez bete dezaketela.

Horretarako, ikasleak gela birtualean sartu eta "Web bidezko inkesta- atzematea" botoia sakatu behar du. Ondoren, galdetegia zabalduko zaio bete ahal izateko.



The screenshot shows the eGela platform interface. The main header includes the eGela logo and navigation links: Hasiera, Aginte-panela, Material erabilgarria. The top navigation bar contains: Ikastaroa, Ezarpenak, Partaideak, Kalifikazioak, Txostenak, Galdera-bankua, Eduki-bankua, Dominak, Iragazkiak, Zakarrontzia, Inportatu. The main content area is titled 'Metrología Dimensional' and contains a section 'Ikasleen iritziaren inkesta' by 'Irakaslea: NAIARA ORTEGA RODRIGUEZ'. A red box highlights the button 'Web bidezko inkesta-atzematea'. A red arrow points from the text above to this button. The left sidebar shows a list of courses, and the right sidebar shows 'Edukien aitortpena' and 'NIRE IKASGELA BIRTUAL GUZTIETARAKO' links.


Prozedurak ezartzen du inkesta ikasgelan bertan egin behar dela, orain arte bezala, edozein gailu mugikor erabiliz. Garrantzitsua da galdetegia ikasgelan bete behar dutela azpimarratzea, iritzi kopuru handia jasotzeko.

3. URRATSA: INKESTAREN BLOKEA DESAKTIBATU

Irakasleak inkestaren blokea desaktibatu behar du eskola amaitutakoan. Horretarako, EDIZIOA botoia aktibatuko dugu.



Jarraian, klik egingo dugu gurpilean eta aukeratuko dugu ezabatu Ikasleen iritziaren inkesta blokea.






The screenshot shows the eGela platform interface. The top navigation bar includes 'Ikastaroa', 'Ezarpenak', 'Partaideak', 'Kalifikazioak', 'Txostenak', 'Galdera-bankua', 'Eduki-bankua', 'Dominak', 'Iragazkiak', 'Zakarrontzia', and 'Inportatu'. The main content area is titled 'Metrología Dimensional'. On the left, there is a sidebar with a list of items under 'INFORMACIÓN GENERAL D...' and 'TEMA 1. INTRODUCCIÓN'. The main content area has a section 'Ikasleen iritziaren inkesta' with a sub-section 'Irakaslea: NAIARA ORTEGA RODRIGUEZ'. Below this, there is a button 'Web bidezko inkesta-atzematea' and a button 'Ezabatu ikasleen iritziaren inkesta blokea' which is highlighted with a red rectangle. There is also a button 'Editatu ikasleen iritziaren inkesta blokea' and a button 'Ezabatu ikasleen iritziaren inkesta blokea'.

Inkestari erantzuteko momentuan intzidentziaren bat badago, izan ikasleek gailu mugikorrik ez daukatelako, izan sisteman arazoren bat dagoelako inkesta egiteko unean ikasgelan, eGelako inkesten blokea 24 orduz egongo da aktibo. Zentroak baditu ordenagailuak informatika gelan inkestari erantzun ahal izateko epe horretan.

ARGIBIDEAK

Irakasleak behar adina aldiz ireki eta itxi dezakete blokea. Talde magistralari irakasten bazaio, inkesta behin bakarrik egin behar du (orain arte paperez egin den bezala); baina soilik praktiketako azpitaldeetan eskolak ematen badira, inkesta ireki eta itxi egin beharko du praktiketako azpitalde bakoitzerako, irakasleak irakatsi dien ikasle guztiek erantzun dezaten.

Ikasgela birtual berean irakasle bat baino gehiago badago, irakasle bakoitzak bere bloke pertsonalizatua izango du izen-abizenekin, eta horrela adierazi beharko zaie ikasleei, nahasterik saihesteko.



UPV/EHUko Ebaluazio Zerbitzuak eta Kudeaketa Informatikarako Zentroak eGelatik egindako online prozedura erabat anonimoa, gardena eta konfidentziala dela bermatzen dute bertan inplikaturako alderdi guztientzat: ikasleak, irakasleak eta ebaluazio zerbitzua.

Hori horrela izanik, beharrezkoa da parte-hartzaile bakoitza bere LDAParekin identifikatzea, pertsona bakar batek galdetegi bakarra betetzen duela eta galdetegiak taldeko ikasleek bete dituztela bermatzeko, eta ezin da, inola ere, iritzi zehatzik identifikatu parte-hartzaile jakin batzuekin.

Irakaslearen iritzi inkesta-txostenean inkestatutako irakaskuntza egoeran matrikulatuta dauden ikasleen iritziak baino ez dira jasoko, beste iritziak baztertuz.